Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko ekainaren 17ko bilkuraren akta onartzea. Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko ekainaren 28ko bilkuraren akta onartzea. Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko uztailaren 5eko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2023ko APIRILAREN 29tik UZTAILAREN 20a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Remiro Esnoz alkateak 2023ko apirilaren 29tik uztailaren 20ra arte emandako ebaazpenen edukiaren berri eman du, eta adierazi du horietako batzuk kargua uzten duen alkatearenak eta beste batzuk sartzen den alkatearenak direla.

Udalkideak jakitun dira.

Nuño zinegotzi andreak Erroko aparkaleku-isunari buruzko argibideak eskatu ditu, eta nola izapidetzen den galdetu du. Idazkariak erantzun du Guardia Zibilak salaketa jarri zuela, udaletxera iritsi zela, eta, salaketa horren arabera, ebaazpenea prestatu zela, kasu honetan, bidea eteten zelako. Isuna ordenantzan eta trafikoari buruzko legean ezarritakoaren araberakoa da. Eta Etxenikeren obra baimenaren txostenaren ebaazpenari dagokionez galdetu du ea proiektu osorako den. Garralda zinegotziak erantzun du projektua hiru fasetan aurkeztu dela eta ebaazpenea lehenengo faseari dagokiola.

Remiro Esnoz alkateak Euskaltrail lasterketari buruzko maiatzaren 3ko 53. ebaazpenari buruz galdetu du, baina ez du lasterketaren data aipatzen. Garralda zinegotzi jaunak erantzun du maiatzaren 21ean dela, Baigorritik irten, Urkiagatik Adira igo eta hortik Orbaizetara doazela.

Adierazi du, halaber, ebaazpen bat dagoela, 108koa, eta testua aldatzeke dagoela; izan ere, Larequi arkitektoarekin hitz eginda, lege bat dago partikularrei instalazio foltovoltaikoak baimentzen dizkiena erantzukizunpeko adierazpen batekin, baina horrek ez du salbuesten obra-lizentzia eskatzeko betebeharretik. Ebaazpenaren testua berrikusita, komenigarritzat jo zen azalpen osagarri bat egitea, herritarrek argi izan dezaten erantzukizunpeko adierazpenarekin obrak has ditzaketela, baina, hala eta guztiz ere, obra-lizentzia ere eskatu behar dutela.

3.- PARKE MIKOLOGIKOAREN KUDEAKETAREN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza, eta Trilumak Estudios Ambientales enpresari Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoa parke mikologikoaren kudeaketa

kontratatzea proposatzen duen kontratacio-mahaiaaren proposamena helarazi dio udalbatzari, 3.000,00 eurotan.

Aho batez erabaki da Erro-Roncesvalles Parke Mikologikoaren kudeaketa Trilumak Estudios Ambientales adjudikatzea 3000 eurotan.

4.- 2022/2023 BASO JARDUEREN ADJUDIKAZIOA ETA 2023/2024 DEIALDIAN DIRULAGUNTZAK ESKATZEA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza. Baso-jarduketen obrei dagokienez, jakinarazi du bost gonbidapen bidali zirela eta horietako bik, Sergio Hernandezek eta Mikel Torreak, eskaintza aurkeztu dutela. Kontratacio-mahaiaik proposatu du lanak Mikel Torreari esleitzea, egindako eskaintzarik merkeenari baita.

Aho batez erabaki da 2022-2023 baso jardueren lanak Mikel Torreari esleitzea eurotan.

Ondoren eta gaiarekin jarraituta, alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du argitara eman dela baso jardueretarako laguntzen deialdia (2023/2024), eta, beraz, erabaki behar dela laguntha horiek eskatuko diren ala ez, eta, hala bada, erabaki behar dela nori aginduko zaion proiektua idaztea. Eskatu beharreko obrei buruz erabakitzeko, 4. eremuko lantaldearen bilera bat egin zen uztailaren 20an, eta bertan izan ziren hiru udal-taldeak eta Basarteako baso-ingeniari Miaillier jauna. Garralda zinegotziak hartu du hitza eta esan du Lizarzura doan Lasturko pista, Sorogaingo sasi-garbiketak eta Loizutik Larraingoara doan pistako bide bat sartzea aipatu zela. Remiro Esnoz alkateak dio, dena den, proiektua prest dagoenean batzordean berriro ikusiko dela, onartzeko, eskaera irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar baita.

Aho batez erabaki da:

- 1.- 2023/2024 Baso Jardueren diru-laguntzak eskatzea
- 2.- Proiektuaren idatzketa Basarteako Baso Ingeniaritza enpresari enkargatzea.

5.- 2022-2023 ABELTAINTZA AZPIEGITURETAKO ADJUDIKAZIOA ETA 2023/2024 DEIALDIAN DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA ONARTZEA.

Remiro Esnoz alkate andreak hartu du hitza, eta abeltzaintzako azpiegituretako 2022-2023 obren esleipenari buruz informatu du kontratacio-mahaiaik obren esleipena hutsik uztea proposatzen duela, aurkeztu den enpresa bakarrak ez baititu betetzen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzak, obrak ezin baititu hilabeteko epean egin, eta hiru hilabeteko epea eskaini baitu. Enpresarekin hitz egin da epea doitze, baina ezinezkoa izan da, eta, gainera, eskaintzen dituen materialak ez dira proiektuan aipatzen direnen berdinak. Beraz, ondorioa da mahaiaaren proposamena aintzat hartzea eta esleipena hutsik uztea. Hori dela eta, Basarteako teknikariak

txosten bat prestatu behar du, obrak egitea ezinezkoa dela justifikatzeko, abeltzaintzako azpiegiturei aurkezteko, lagunzei uko egiteko idazki batekin batera. Garralda zinegotziak galdu du zer nolako materialak erabili behar diren eta zer enpresekin hitz egin den eta erantzun zaio besteak beste, Lakita, Comal eta Bengoetxea enpresekin mintzatu dela eta guztiak diotela berandu izapidetu denez eta ez dutenez denborarik ezta materialik ere obrak egiteko, ezin dutela kontratuak dioena bete. Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza berriz ere, eta esan du lantaldearen bileran baloratu zela, enpresak obrak epe barruan egiteko konpromisoa hartzerik ez bazuen, espedientea hurrengo 2023/24 deialdira lekualdatzeko aukera zegoela, enpresa horrekin aurrera jarraitzeak dirulaguntza arriskuan jar zezakeelako eta zigorra ekarriko lukeelako, eta, horregatik, kontratazio-mahaiak esleipena hutsik uztea proposatu zuen, are gehiago 2023/2024rako laguntzen deialdia mahai gainean dagoenean eta lagunza-eskaera dagoeneko aurkeztu behar dugunean. Hortaz, Remiro Esnoz zinegotziak proposatu du proiektu bera 2023/2024 Abeltzaintza Azpiegituren deialdira aurkeztea.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- 2022/2023 kanpainako abeltzaintzako azpiegituren obren kontratazioa hutsik uztea, uko egiteko idazkia aurkeztuz Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza Azpiegituren Zerbitzuari.
- 2.- 2023/2024 kanpainako abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak eskatzea, 2022/2023 kanpainan aurkeztutako proiektuaren eduki eta jarduketa berberak aurkeztuz
- 3.- Gastua onartzea 2023 eta 2024ko aurrekontuen kargura.

6.- URROBI INDUSTRIALDEKO LANEN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza. Espedientearen dokumentazioa, Eunatek prestatutako memoria eta dirulaguntzaren % 50 emateko ebazpena kontuan hartuta, esleipen-proposamenik ez dela helarazi jakinarazi du, esleipen-prozedura erabakitzeko orduan xehetasun tekniko bat argitzeko zain daudelako. Proiektuak obraren zati bat eta horniduren beste zati bat ditu, eta, beraz, kontratu misto bakarra den edo bi kontratu bereizi gisa diren ikusi behar da. Horretarako, idazkariak espediente hau daraman Nafarroako Gobernuko teknikariarekin konsultatu nahi du, eta ikusi zein den erabili beharreko prozedurak egokiena, batez ere inguruan lan egiten duten enpresak ere parte hartzea nahi bada. Zalantza da obra zuzenean eraikuntza-enpresa bati esleitu ahal zaion eta eraikuntza-enpresa horrek hornidurak azpikontratatu behar dituen edo obra- eta hornidura-kontratu misto bat izan behar duen. Bertan, lehentasuna partidarik altuenarentzat da, kasu honetan hornikuntza partidarentzat, eta, beraz, kontratazio-atarira atera beharko litzateke.

Garralda zinegotzi jaunak galdetu du obra honen ardura bere gain nork hartzen duen, Partzuergoak edo Udalak eta erantzun zaio Udalak, Partzuergoak ezin zituelako laguntza horiek jaso, baina bai dirulaguntzaren bidez finantzatu ez den obraren zatia Partzuergoak finantzatuko duela. Remiro Esnoz alkateak adierazi du industrialdean egin beharreko jarduketak ez direla independenteak, ez direla alde batetik obrak eta bestetik bideozaintza-kamerak, lotuta joan behar dutela, eta, beraz, interesgarriena enpresa bakar bati esleitzea dela. Gainera, jakinarazi du Aezkoako Batzarrak espediente horren berri duela, eta emango diren urratsekin ados dagoela; hala ere, esleipena egin ondoren, beste bilera bat egin beharko da Aezkoako Batzarrarekin, behin betiko ordainketa nola ebazten den berrikusteko, Partzuergoaren funtsekin ordainduko baita.

Aho batez erabaki da obrak esleitzea prozedura zehaztu gabe, Nafarroako Gobernuko teknikariak zer dioen zain, eta hurrengo bilkurarako uztea onartzeke gastu horri lotutako aurrekontu-aldeketa.

7.- EB NEXT GENERATION FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA ONARTZEA

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta Udalak Next Generation EU funtsekin finantzatutako obra bat duela jakinarazi du. Erroibar digitalizatzeko obrak dira, Nafarroako Gobernuaren Proiektu Estrategikoekin sinatutako hitzarmen baten bidez. PRTRn planteatutako ekimenak gauzatzeko, administrazio publikoek egokitu egin behar dituzte kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua. PRTRn planteatutako ekimenak gauzatzeko, administrazio publikoek egokitu egin behar dituzte kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua. Arintze-neurri batzuk abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarri ziren, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta PRTR betearazteko premiazko neurriak onartzen dituena. Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuko Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen. Agindu horren bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, Kudeaketa Programa) kudeatzeko sistema eratu zen. Plan horretan, Europako Erkidegoko araudiak PRTR betearazteko ezarritako eskakizunak modu koordinatuan betetzen direla bermatzeko jarraibideak ezartzen dira. Horietako bat iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea da.

Horrela, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluaren arabera, PRTRren neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzale edo betearazle orok, gure kasuan bezala, iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, eta plan horrek bermatu eta deklaratu beharko du, dagokion jardun-eremuan, dagozkion

funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez.

Horregatik, Erroibarko Udalak, PRTRren erakunde betearazlea den aldetik, Iruzurraren aurkako Neurrien Plana aurkeztu eta onartu behar du, Udaleko langileen lana errazteko, Erkidegoan, estatuan eta eskualdean ezarritako iruzurraren aurkako baldintzak bete ditzaten, hurrenez hurren.

Onartu nahi den iruzurraren aurkako neurrien planaren helburua Erroibarko Udalaren eremuan Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan garatutako azpiproyektu eta jarduketei lotutako iruzurra, barnekoa zein kanpokoa, murriztea da, betiere iruzurraren arloan esleitura dituen eskumenak, administratiboak soilik, kontuan hartuta.

Plan horrek iraupen mugagabea izango du, baina aldizka berrikusiko da, bi urtean behin, eta, nolanahi ere, iruzur-arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa berrikusiko da beharrezkoa denean, iruzur-kasuren bat detektatu delako edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa esanguratsuak egon direlako.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- Next Generation funtsak kudeatzeko iruzurraren aurkako neurrien plana onartzea
Erroibarko Udalak zero tolerantziako politika bat ezartzen du iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean, eta kontrol-sistema sendo bat ezartzen du, bereziki diseinatua iruzurak prebenitzeko eta, ahal den neurrian, antzemateko eta, gertatuz gero, horien eragina zuzentzeko.

2.- Planean sartutako I.letik VII.erako Eranskinak onartzea

3.- Erabakiari orain onetsitako iruzurraren aurkako Plana erantsi zaio.

8.- LAURENTXIKO OIHAN APROBETXAMENDUAREN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA - 2023

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du 2023ko oihan aprobetxamendua arautzen duten baldintza teknikoen plegua bidali dutela Nafarroako Gobernutik eta orain aprobetxamenduaren enkantea zein hura arautuko duten baldintzen plegua onetsi behar direla. Lotea honakoa da: - Lote bakarra. - Laurentxi parajea, Laurentxi MENDIA, 255 pagoz osatua, 502 m³ zur eta 264 m³ enbor-txiki egiten dutenak. Oinarrizko prezioa: 50.000,00 euro.

Aho batez erabaki da:

1.- Honako lotearen aprobetxamendua Nafarroako kontratacio atariaren bidez eta web orrian zein iragarki oholean argitaratuta, enkante publikora ateratzea:

- Lote bakarra. - Laurentxi parajea, Laurentxi MENDIA, 255 pagoz osatua, 502 m³ zur eta 264 m³ enbor-txiki egiten dutenak. Oinarrizko prezioa: 28.848,00 euro.

2.- Aprobetxamendua arautuko duen administrazio baldintzen plegua onartzea.

9.- ANIMSAKO UDALAREN ORDEZKARIA IZENDATZEA

Animsan Udal ordezkatzeko udalbatzako kiderik izendatu ez denez, aho batez erabaki da Remiro Esnoz alkatea izendatzea Animsan Udalaren ordezkari, eta Nuño Iturri alkateordea ordezko, eta hartutako erabakiaren berri ematea Animsari.

10.- BILKUREN EGUTEGIA ALDATZEA

Remiro Esnoz alkateak hitza hartu du eta bilkuren egutegia aldatzea proposatu du. Uztailoko bilkuran ohiko bilerak hilabete bikoitietako bigarren asteazkenetan egitea erabaki zen, eta hilabete bikoitietako hirugarren asteazkenetan egitea proposatu du. Gabonak arte irailaren 20an, urriaren 18an eta abenduaren 20an izango lirateke. Aho batez erabaki da Remiro Esnoz alkateak proposatutako bilkura-egutegiaren aldaketa onartzea, eta erabaki da hilabete bikoitietako hirugarren asteazkenetan egitea.

11.- BESTERIK

Remiro Esnoz alkateak hartu du hitza, eta sortutako lan-arloen arabera, honako hau jakinarazi du:

1. Arloa

Gazteriaren diagnostikoa

Alkateak jakinarazi du bi bilera egin direla eta diagnostikoa martxan dagoela. Dokumentazio hori lehenbailehen zabaldu behar da, gaur eta bihar bitartean, gazteei gazteria-diagnostikoa egingo zaiela eta abuztuaren 3an, 20:00etan, Lintzoaingo frontoian jendaurreko aurkezpena egingo dela jakinarazteko. Lintzoaingo Kontzejuari frontoia erabiltzeko baimena eskatuko zaio. Diagnostiko espres bat egingo da, baina zerbait ona aterako den egokitzapen-maila batekin, eta hori aurrera egiteko balioko du, bigarren edizio bat edo antzeko beste prozesu bat lantzen eta errepikatzen jarraitzeko oinarrizko kontzeptu batzuekin. Lan talde honetan Nuño eta Bidaurreta zinegotziak eta Remiro Esnoz alkatea daude eta gainerako kideak parte hartzera gonbidatu ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

NABIren dirulaguntza deialdia

Jakinarazi da bihar lantaldearen bilera dagoela, zer ekintza eskatu zehazteko. Aurtengo martxoan egin zen prestakuntza-ekintza bat egin da, eta gainerakoak erabakitzeko daude. Laguntzak eskatzeko epea abuztuaren 9an amaituko da.

Arlo horretan dago, halaber, NUKFrekiko hitzarmena. Hitzarmenak berdintasunari buruzko zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, webinar baten bidez jakinarazi zituenak. Hala ere, hitzarmen horiek berandu sinatzen dira, eta azaroan justifikatu behar dira. Bete beharreko galdetegi bat bidali digute. Bertan, ondoren aholkua eman

diezaguketen gaiak aukeratu behar dira. Jiménez zinegotzi andreak hartu du hitza, eta jakinarazi du NUKFren bidez ere lagunza eskaintzen dela kontratazio-klausuletan genero-ikuspegia sartzeko, eta zerbitzu espezifiko bat duela horretarako.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

2. Arloa

Ikasleen garraioa

Jakinarazi da derrigorrezko hezkuntzaren ondoko eskola-garraioa erabiltzen duten familiek gutun bat aurkeztu zutela uztailaren 21ean, iazko egoera berean daudela azalduz. Hezkuntza Departamentuak ez du ibilbiderik prestatzen ikasle horientzat, eta, horregatik, eragindako entitateei eskatzen diente, alde batetik, toki entitateak parte har dezatela foru legea betetzea eskatzen, eta, bestetik, partaide aktibo izan daitezela ikasturte honetarako eta etorkizunerako konponbideak bilatzeko, hau da, irtenbideak ez bakarrik epe laburrera, baizik eta epe ertain eta luzera.

Auritz eta Garraldako udalekin bilera bat egitea proposatu du, horiek baitira ukitutako beste bi erakundeak, gutuna aztertzeko eta zer egin daitekeen eta noraino esku hartzeko prest gauden erabakitzeko. Foru Agindua, bere garaian Gardentasun Atarian argitaratuta zegoena, ez da iaztik aurtengora aldatu, eta ez zaie kasurik egin alegazio horiek babestu zituzten familiek eta udalek aurkeztutako alegazioei. Ekainaren 1ean bilera bat izan zen Hezkuntza Departamentuan, eta Pirinioetako Mahaia bertaratu zen. Bertan, Foru Aginduaz eta derrigorrezkoa ez den hezkuntzaren garraioaren arazoaz hitz egin zen, eta esan zen ibilbideak diseinatuta zeudela, baina ez dago horien berri. Familia horiei diru bat esleituko zaie, joan den ikasturtean bezala, lagunza indibidualizatua, baina familia bakoitzari egokituko zaion zenbatekoa jakin gabe. Orain erabaki behar da, alde batetik, ekonomikoki lagunduko zaien, eta, bestetik, lan politikoa egiten jarraituko dugun.

Udalbatza ados dago gainerako toki entitateekin bilera egiteko proposamenarekin.

3. Arloa

Turismo-jasangarritasuneko plana helmugan

Jakinarazi da bere garaian Done Jakue bideari buruzko proiektu bat aurkeztu zela, baina azkenean baztertu egin zela, eta, ondoren, Cedernak Luzaide, Orreaga, Auritz eta Erroibarko udalei bilera baterako deia egin zien, uztailaren 18ko bileran azaldu behar zutenaren berri emateko. Bilera horretan esan zen planak behin betiko dokumentu bat duela eta proiektu hori kanpoan geratzen dela azkenean, baina beste epe txiki bat irekitzen zela beste proiektu posible batzuk sartzeko. Hartara, datorren asteko asteazkenean lan bilera egingo da gaiaz mintzatzeko. Uztailaren 18an, Batzorde Teknikoa toki-erakundeekin eta turismo-elkarrekin elkartu zen, eta bilera

horretara Jimenez zinegotzi andrea joan zen. Bertan, plana azaldu zen. Planak lau ardatz ditu, eta aurkezten diren proiektuak lau ardatz horietako batera egokitu behar dira. Bi epe daude, bata 15era arte ideiak aurkezteko, eta, bigarren hamabostaldian, abuztuaren 30era arte, Cedernak jakinaraziko luke zeintzuk egokitzen diren eta zein sar daitezkeen, eta memoria bat idazten lagunduko luke. Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmen ekonomikoak sinatuta egon behar zuen, baina ez dago sinatuta; irailean egitea aurreikusten da, baina ez dago segurtasunik. Nolanahi ere, hobe da egun horietarako sinatuta egon behar duelako ideiarekin lan egitea, hala ez bada ere, eta tarte handiagoa izan dezakegulako.

Arlo honetan dago, halaber, ostiral honetan Guifinetekin egingo den bilera. Bilera horretan, besteak beste, gertatu diren itzalaldiez eta konponbideez hitz egingo da, eta zinegotzi guztiei irekita dago. Garralda zinegotzi jaunak hartu du hitza. Ulertu duenez, Guifinetek enpresa txiki guztiei ere irtenbidea eman nahi die itzalaldi horiek gertatzen direnerako, operadorearen arabera, arazoak izan dituztelako.

Udalbatza jakitun da.

5. Arloa

Barra erauntsia eta Filomena erauntsia

Odia proiektuaren eta Infante ingeniarri jaunarekin uztailaren 14an izandako bileraren berri eman da. Bilera horretan erauntsien espedienteak ere berrikusi ziren. Uraren edangarritasunaren eta lagin-bilketaren emaitzen berri ere eman da. Emaitzaz horiek positiboak izatea espero da, baina oraindik ez dira iritsi. Proiektua azarorako prestatuko dute, aurretik Tokiko Azpiegituren Planean (PIL) sartutako proiektuak idazten ari direlako. Proiektu horiek irailaren 25erako aurkezu behar dira, eta aldez aurretik osoko bilkuran onartu behar dira. Aurizberriko leizeaz ere hitz egin zen, eta obrek ukitutako partikular baten baimena idatziz jasotzeko beharraz.

Udalbatza jakitun da.

6. Arloa

2022ko kontuen espedientea

Jakinarazi da 2022ko kontuen espedientea onartu gabe dagoela eta iraileko bilkuran aurkeztea espero da.

8. Arloa

Erroibarko Eguna

Alkateak Erroibarko Egunaren balorazio positiboa egin du eta gainerako udalkideak ados daude, hala ere lan taldearen bileraan balorazioa egingo da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Kristobalena etxeeko txosten juridikoa

Jakinarazi da Aurizberriko Kristobalena etxearekin zerikusia duen txostenaren jaso dela eta udalkideei igorriko zaiela. Modu berean jakinarazi da gaiari buruzko beste bilera bat egitea eskatu dela. Txostenaren arabera ikusiko da bilera hori egitea beharrezkoa den ala ez.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Barra erauntsia-udaletxeko aparkalekuak

Jakinarazi da udaletxeko aparkalekuaren egiten ari diren obrei dagokienez, aurrekontua aurkeztu zela lan batzuk gehiago egiteko baina erabaki zela ez egitea. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Besterik

Jakinarazi da Erroko eskolan margotze lanak egin direla, alkatearentzako ordenagailu eramangarria erostea baloratzen ari direla, dagoena idazkariak erabiltzen duelako, eta baita telefono mugikor bat erostea ere

Azkenik, jakinarazi du Eunaterekin elkartu ziren egunean Bizkarretako Kontzejuak disuasio-seinaleak jartzeko egindako eskaerari buruz hitz egin zela, arkitektoari koordenatuak markatzeko eskatu zaiola eta Eunateri azterketa bat egiteko eskatu zaiola, non jartzea komeni den ikusteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Garralda zinegotziak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Kintoa

Garralda zinegotziak jakinarazi du Kintoko ustegiak berrikustera joan zela Nuño zinegotziarekin eta Baztango Aitor Bartzarrikarekin, azken honek Mankomunitatearentzako lan egin ohi du ustegiak egin edo konpontzeko. Hainbat eremutan egon ziren, baita Larrauxen eta 1. Eremuan eta ezkerraldeko maldara ezin izan zuten joan giltzik ez zutelako. Hor dago Enekorriko eremua eta bi etxola berrikusi behar dira aspalditik ez baita deus ere egin horiek konpontzeko. Hainbat aurrekontu aurkeztu dira baina momentuz ez da ezer egin behar abuztuaren 1a arte, besteak beste, Baztango ordezkarria, Moreno, kanpoan baitago eta itzuli arte itxaron beharko dugu. Eguneroko lanak egingo dira baina garrantzitsuak diren hainbat erabaki osoko bilkuran hartu behar dira. Usategiei dagokienez, esan du urtero balorazioa egiten dela eta horietan inbertitzen dela ongi mantentzeko, eta aurten gauza bera egingo dela. Usategi eta etxola guztiak Mankomunitatekoak dira eta horietan inbertitu egin behar da, erabiltzaileek hori asko baloratzen baitute. Materiala Almaco-Baztanek izaten du eta haietan mintzatuko da lanak egin behar direnean materiala izan dezaten eta aurrekontua igor dezaten. Berriro Kintora joango dira ikusi gabe gelditu den eremua ikusteko eta aurten zein ustegi eta etxola konpondu

behar diren baloratzeko. Horietako lan anitz Mankomunitateko langileek egin ditzakete.

Jakinarazi du baita 12. Usategiarenn kokapena aldatzea eskatu dutela eta Izko ingeniariek txostena idatzi duela eta Nafarroako Gobernura igorri dela onesteko.

Jakinarazi da Baigorritarrek pista bat konpondu nahi dutela, Lindusera doa, eta badutela horretarako dirulaguntza. Nafarroako Gobernuak txosten bat egin behar du eta idazkariak erantzun du txostena ailegatu dela eta horren berri eman zaiela.

Jakinarazi du baita badagoela Baztango Udalarekin mugen inguruko afera bat, 1928tik 1932ra bitarteko aktak begiratzen aritu da, Erro eta Baztanen arteko muga gaizki jarri baitzen eta hori tokian bertan azaldu nahiko luke. Baztango Udalak badu gaiaren berri aurreko legegintzaldiko ordezkariaren bitartez. Berrikusitako aktetan Baztango Udalari dei egin zitzaion mugak jartzeko, baina ez ziren joan udala ez zegoelako osatua, orduan gerra hasi zen eta gaia egin gabe gelditu zen. Geografia Institutu Nazionalak hori berretsi du, 1931tik mugaketa egin gabe dagoela. Erregerenaren epaian aipatzen da 89. Mugarrria hiru haranekoa dela, Baztan, Esteribar eta Erro, eta 1931ko aktan aipatzen diren mugen bat egiten du. Azken finean, gaia korapilatsua eta aldi berean interesgarria da eta zuzendu egin behar da. Azkenik, jakinarazi du Zuraungo eskaintza hutsik geratu zela, eta enkantera atera behar dela berriro, % 10eko beherapenarekin, eta sozietateetako postuei ere prezioa jarri behar zaiela; gai hori mankomunitatearen bilkuran ere onartuko da.

Azkenik, CHEko teknikari bat etorri zen Olaberriko arrain-haztegia aztertzera, presak kentzeko asmoz, baina hainbeste gustatu zitzaion ingurua, ezen amuarraina interpretatzeko zentro txiki bat idaztea prestatzen ari baitira, eta CHEk Madrilen aurkeztuko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:40ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.